

BEHIN BETIKO

Behin - betiko behin -
betiko

simple bezain tinko
ez dugu etsiko

Behin - betiko behin - betiko
simple bezain tinko
euskeraz ta kitto!

Etxean eta kalean
Berdin - berdin jolasean
eskolan lanean
borrokan eta pakean
dakitenek erabiliz ez dakite-
nek ikasiz
herri bat osaturik euskaraz
nahi dugu bizi.

Hasi etxetik eta kalera
hasi kaletik eta etxera
martxan jarri da lege berria
EUSKARAZ EUSKAL- HERRIAN
(berriz)



EUSKALDUNAK GARA (PIRRITX, PORROTX ETA MARI- MOTOTX)(PIRATAK)

Akaso gu ez gara handienak,
ez gara agertzen mapamundian;
akaso gu ez gara politenak,
ez gara ibiltzen pasareletan...


Baina gure herri ederrean
barra-barra ditugu
festa ta umorea.
Nongotarrak garen galdetzean,
harrotasunez esan:
euskaldunak gara!

Akaso ez gara Karibekoak,
ez dugu ongi dantzatzen txa-txa-txa;
akaso ez gara wonderfulenak,
ez dugu atsegin hot-dog saltxitxa.

Baina gure herri ederrean
barra-barra ditugu
festa ta umorea.
Nongotarrak garen galdetzean,
harrotasunez esan:
euskaldunak gara!(berriz)



Anaitasuna ikastola



Euskeraren Eguna

Abenduaren 3a

EUSKARAREN EGUNEKO EGITARAUA

09:00-10:45: EKINTZA EZBERDINAK:

* HAUR HEZKUNTZA

- * **09:15:** 5 urteko ikasleak 3.mailakoek egindako *Power Point* aurkezpena ikusiko dute.
- * **09:15:** 4 urteko ikasleak 4.mailako ikasleengana joango dira olerkiak abestera.
- * **09:00:** JOLASAK.

* L.H. 1.ZIKLO

- * **1.MAILA:** Eskulanak
- * **2.MAILA:**
 - * **09:30:** 3.mailakoek aurkeztuko duten *Power Point* aurkezpena ikusi.
 - * Ondoren postalak egingo dituzte.

* L.H. 2.ZIKLO

- * **3.MAILA:**
 - * *Power Point* aurkezpena 5 urteko ikasleei eta 2. mailakoei.
 - * Bertsoa kopiatu eta apaindu.
- * **4.MAILA:**
 - * **09:15:** 4 urteko ikasleek abestuko dituzten olerkiak entzun.
 - * **09:30:** bertsoa kopiatu eta apaindu..

* L.H. 3.ZIKLO

- * **5.MAILA: POSTALAK**
- * **6.MAILA:** aurkezpena eta apainketa

10:45 - ABESTIAK

- * Eguraldi onarekin C patioan.
- * Euriaeekin aretoan.

11:30 - DANTZAK

- * **3.ziklokoen pasabidean:** L.H. 1.zikloa eta HH
 - * L.H. 1.ziklokoek bi ekitaldi egingo dituzte:
 - * 2 urtekoentzat .
 - * 3, 4 eta 5 urtekoentzat.
 - * 5 urteko ikasleek koreografia bat dantzatuko dute, eta 4 urtekoek olerkiak abestuko dituzte.
 - * **LELO LEHIAKETAREN SARI BANAKETA.**
- * **ARETOAN:** L.H.-ko 2. eta 3. ziklokoak.
 - * Txandaka, ikastalde bakoitzak bere dantza eskainiko du.
 - * **LELO LEHIAKETAREN SARI BANAKETA**

14:30-16:00

- * Haur Hezkuntzakoek eskulanak egingo dituzte.
- * L.H. 1.ziklokoek Herri Kiroletan parte hartuko dute.
- * L.H. 2. eta 3. ziklokoek, herri mailan antolatu diren ekintzetan parte hartuko dute.

**EGUN ONA PASA EZAZUE
EUSKARAZ BIZIZ.**